

“ANDRE” ETA “ANDRA”

1977 - 29 - IV

Zatarain' darr Ambrosi'k

Bizkaieraz *-a* erro-letraz eta beste euskalkietan *-e* erro-letraz bukatzen diran itz mordoska bat bada. Ona oietako batzu:

Agure eta agura; azkure eta azkura; bele eta bela; epaille eta epailla; eusle eta eusla; irakasle eta irakasla; irakurle eta irakurla; irule eta irula; izurde eta izurda; jabe eta iaba (Kapnaga, 83); kalte eta kalta (RyS, 510); landare eta landara; larre eta larra; labe eta laba; obe eta oba; ote eta ota; sarde eta sarda; sare eta sara (Azk. CV 241, Garibai LX); eule eta eula; talde eta talda; tolare eta tolara, dolare eta dolara; txorikume eta txorikuma; zorne eta zorna.

Bitasun ori nondik sortua izan litekenari buruzko nere susmoa agertzeko da nere txosten au.

Etxe bezelako izenek' *-e* letraz bukatzen diranek alegia' *-a* bereizte-atzizkia erantsirik *etxea* (edo *etxea*) ematen duce edozein euskalkitan. Baiña erroaren azken-letraa *-a* danean' batasun ori bitasun gertatzen da bizkaieraz eta gipuzkerazko erri-mordoska batean $a + a + ea$ (edo ia) egiten da, beste euskalkietan berriz $a + a = a$. Esate baterako' *alaba + a = alabea* (edo *alabia*) eta *neska + a = neskea*. Ori orrela dalarik' orain izen bereizitu bat artzen baldin badugu, *larrea* esate baterako' bizkaieraz bereizkabea *larra* naiz *larre* berdin izan liteke. Orra beraz nere susmoa: leenik *andre* izenetik *andrea* sortu zala, eta *andre*'tik berriz *andra*.

Bero'tik *berua* eta *buru*'tik *burua* ateratzen duden errietan arrisku berbera gertatzen da, ez ordea *buru*'tik *buruba* edo *buruia* ateratzen danetan. Ona Etxeberria'tar Toribio'ren iztegian arkitu ditudan batzu: arrilandozko; amokua; antzo-